

Alexandr Puxkinen lau olerki

G. ENSSLIN & A. BAADER

ARGITALPEN ELEBIDUNEI BOTERE GUZTIA!

Errusierarik ez dakien panfleto honen irakurle gaztelaniaduna *Antología lírica* (Hiperión, 1999 Madril, Espainiako Erreinua) bildumara bidali nahi dugu. Hautua eta itzulpena Eduardo Alonso Luengok egin zuen. Hitzatzea Román Jákobsonek. Irakurle frantsesduna Katia Granovek egin *Anthologie de la poésie russe* (nrf-Gallimard, 1961 Cher, Frantzia) bildumara bidali nahi dugu. Hitzaurrea Brice Parainek egin zuen. Gu handik habiatu gara itzulpenotarako.



<ezin da edozer defendatu baina bide guztiak dira zilegi>
UMPS [ap]: Arbeitsrat für Kunst
<Вся власть самиздатам!> UMPS [ap]: pamphletosovéta



G. ENSSLIN & A. BAADER
BILBO (JORDANIA)



>derSchmähschriftFürDenKulturwiderstand<

[web::zueu.com] [blog::andresetagudrun.wordpress.com]
[twitter::@andreas_gudrun] [e-posta::andresetagudrun@gmail.com]
[zureAuzokoHarategian] [samizdatElebiduna] [bilingual] самиздат
[2012ko martxoko itzulpena, uztailan argitaratua,
Siberia] [Walhalla- Boliwarińska Republika Walhallij]
Alexandr Puxkin & Gudrun Ensslin & Andreas Baader

CCCP-CC-BY-SA

Aitortu-Partekatu-Eraldatu: Libreki hedatu lan hau.

Etekin ekonomikoa atera dezakezu baldin eta horrekin etxe duina, elikadura duina eta gutxieneko behar eta luxuak asetzea baduzu edo Gasteizko Sendako etxetxo moñoñoen aurkako eraso finantzatu behar baduzu. Bestelako erabilerak erabat debekatuak daude. Bereziki errebeldia pose bat dela uste edo praktikatzan dutenei.



ВО ГЛУБИНЕ СИБИРСКИХ РУД...

Во глубине сибирских руд
Храните гордое терпенье,
Не пропадет ваш скорбный труд
И дум высокое стремленье.

Несчастью верная сестра,
Надежда в мрачном подземелье
Разбудит бодрость и веселье,
Придет желанная пора:

Любовь и дружество до вас
Дойдут сквозь мрачные затворы,
Как в ваши каторжные норы
Доходит мой свободный глас.

Оковы тяжкие падут,
Темницы рухнут — и свобода
Вас примет радостно у входа,
И братья меч вам отдадут.

SIBERIAKO MEHATZEEN SAKONEAN

Siberiako mehatzeen sakonean
iraunkortasun eta harrotasunez beteta,
ez da alferrikakoa izango zuen ahalegina
ezta zuen inteligentzia irrika ere.

Zorigaitzeko ahizpa fidela da
itxaropena, kartzela ilunetan
kuraia eta poza piztuko du,
itxarondako unera eramango zaituzte.

Zuenganaino helduko da
laguntasuna eta maitasuna,
preso zaudeten zeldetara helduko da
nire azentu askea.

Kate astunak lurrera jauziko dira,
presondegia hondoratuko da — eta askatasunak
goxo itxarongo zaituzte sarreran,
eta anaiak besoak zabalduko dizkizuet.

1827¹

1.- 1825ean huts egin zuen altxamenduko dezentariek Siberiara deserriratu zituen Nikolas I tsarrak. Haiei eskaini zien olerkia.

Я ВАС ЛЮБИЛ: ЛЮБОВЬ ЕЩЕ, БЫТЬ МОЖЕТ...

Я вас любил: любовь еще, быть может,
В душе моей угасла не совсем;
Но пусть она вас больше не тревожит;
Я не хочу печалить вас ничем.
Я вас любил безмолвно, безнадежно,
То робостью, то ревностью тоним;
Я вас любил так искренно, так нежно,
Как дай вам бог любимой быть другим.

ПОЭТУ.

Поэт! не дорожи любовью народной.
Восторженных похвал пройдет минутный шум;
Услышишь суд глупца и смех толпы холодной,
Но ты останься тверд, спокоен и угрюм.

Ты царь: живи один. Дорогою свободной
Иди, куда влечет тебя свободный ум,
Усовершенствуя плоды любимых дум,
Не требуя наград за подвиг благородный.

Они в самом тебе. Ты сам свой высший суд;
Всех строже оценить умеешь ты свой труд.
Ты им доволен ли, взыскательный художник?

Доволен? Так пускай толпа его бранит
И плюет на алтарь, где твой огонь горит,
И в детской резвости колеблет твой треножник.

ДЛЯ БЕРЕГОВ ОТЧИЗНЫ ДАЛЬНОЙ...

Для берегов отчизны дальней
Ты покидала край чужой;
В час незабвенный, в час печальный
Я долго плакал пред тобой.
Мои хладеющие руки
Тебя старались удержать;
Томленье страшное разлуки
Мой стон молил не прерывать.

Но ты от горького лобзанья
Свои уста оторвала;
Из края мрачного изгнанья
Ты в край иной меня звала.
Ты говорила: „В день свиданья
Под небом вечно голубым,
В тени олив, любви лобзанья
Мы вновь, мой друг, соединим“.

Но там, увя, где неба своды
Сияют в блеске голубом,
Где [тень олив легла] на воды,
Заснула ты последним сном.
Твоя краса, твои страданья
Исчезли в урне гробовой —
А с «ними» поцалуй свиданья...
Но жду его; он за тобой...

NIK MAITE ZINTUDAN

Nik maite zintudan: maitasuna ez da oraindik
osoki iraungi ariman;
baina ez izan beldurrik ez zaitut ostera gogaituko,
ezta ostera atsekabetuko ere.
Nik maite zintudan hitzik gabe itxaropenik gabe;
jelosiaz eta lotsaz preso;
maite zintudan hain zintzo eta xamur
Jainkoak zu ostera maitatzea nahi lukeen bezala. ²

OLERKARIARI

Olerkari, ez izan helburu herriaren maitasuna.
Lausengu suharraren zarata arin gurutzatu;
tentelaren epaia adituko duzu eta turba hotzaren irria,
zuk eutsi irmo, lasai eta ez-gizartekoi.

Tsarra zara: bakarrik bizi. Zoaz aske bidean,
zoaz inteligentzia askeak zaramatzen lekura,
zure ideia garestienen fruituak bikaindu
balentria prestuengatik saririk eskatu barik.

Zer dira haiek. Zu zeu zara zeure epai gorena;
inork baino hobe dakizu zeure lanaren balioaz.
Hartaz pozik al zaude artista kontentagaitza?

Pozik? utzi bada turbak irain egin diezaiola
eta tu egin diezaiola suak argitzen duen altarean
eta gaiztakeria nazkagarriak zure tripodeta kulunka dezala.

1830

ZEURE ABERRIAREN ITSASERTZ URRUNETAN

Zeure aberriaren itsasertz urrunetan
herrialde arrotza utzi zenuen;
une goibel hartan, une ahaztezin hartan,
hainbeste nuen negar egin.
Esku izoztuekin, ulu artean,
atxiki nahi zintudana
eta ihesaren mina ez zedila
behin ere eten.

Baina zuk muxu hartatik eta mikaztasunetik
ezpainak erauzi zenituen;
deserri ilun batetik
bestera deitu ninduzun.
Esan zenidan: «berri topatuko garen egunean,
olibondoaren itzalpean,
urdin eternalaren pean batuko gara
musu batean, maitea».

Urrunean, zeruak urdin intentsuz
dirdira egiten duen lekuan,
olibondoak urari itzal egiten dion gunean
egiten duzu zure azken ametsa.
Zure edertasuna, zure penak,
hilkutxan daude bilduta —
eta haiekin berri topatuko garen eguneko musua...
Oraindik zain nago; zure zorra da...

1830³

2.- Ana Alixjevna Olienari (1808-1888) eskainia. Eduardo Alonso Luengoren arabera Puxkinen maitasun olerki ezagunena da.
3.- Amalia Riznitxen omenez idatzia.